

2007ko urtarrilean bidaiarien sarrerak %5 gehitu dira

2006ko urtarrilaren aldean, bestalde, bidaiariak %10 gau gehiago igaro dituzte.

Eustaten datuen arabera, 2007ko urtarrilean 108.287 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 5.500 gehiagok eta, horrenbestez, %5eko gehikuntza izan da. Bizkaian %11 gehitu da etorritako bidaiari kopurua eta Araban %2; Gipuzkoan ez da aldaketarik izan (%0).

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak %3ko gehikuntza izan dute eta atzeritik etorritakoen sarrerak %15ekoa. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua gehitu egin da Bizkaian (%8), baina Araban (%3) eta Gipuzkoan (%2) bidaiarien kopurua gutxitu egin da. Hiru lurralde historikoetara etorri da atzeritar gehiago: Arabara %21 gehiago, Bizkaira %21 gehiago eta Gipuzkoara %5 gehiago.

Estatutik etorritako bidaiarien kasuan, besteak beste Kataluniatik, Aragoitik, Kanarietatik, Gaztela eta Leondik, Valentziatik, Galiziatik eta Nafarroatik etorritakoen kopurua gehitu egin da. Baina bidaiari gutxiago etorri da batez ere Madrilatik, Balearretatik, Galiziatik eta Euskal Autonomia Erkidegotik. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Frantziatik, Italiatik, Portugaldik, Iberoamerikatik eta AEB-Kanadatik; aitzitik, Alemaniatik, Austriatik eta Danimarkatik etorritakoen kopurua gutxitu egin da, besteak beste.

2007ko urtarrilean 196.765 gau igaro dituzte bidaiariak; hau da, aurreko urteko urtarrilaren aldean gaua igaro dutenen kopurua %10 gehitu da, guztira 18.000 gau gehiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %8 gehitu da kopuru hori, Bizkaian %14 eta Gipuzkoan %6.

Batez besteko egonaldiaren iraupena gehitu egin da Euskal Autonomia Erkidego osoan: aurreko urtean batez besteko hori 1,74 egunekoa izan zen eta aurtengo urtarrilean 1,82 egunekoa. Beraz, indize horrek gora egin du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan.

Plazen okupazio mailak %7ko gehikuntza izan du; aurreko urteko urtarrilean %29,07koa zen eta aurtengo urtarrilean %31,08koa. Gehikuntza hori Araban (%14) eta Bizkaian (%11) eman da; Gipuzkoan, aitzitik, pixka bat murriztu da (%-1).

Nekazalturismoa: Bidaiarien sarrerak gehitu ziren (%11), baita bidaiariak igarotako gauak ere (%21)

Urtarrilean 4.228 bidaiari izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %11 gehiago; bidaiari kopurua %75 gehitu da Araban eta %20 Bizkaian, baina Gipuzkoan %10 murriztu da. Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora etorritako bidaiarien kopurua guztira %16 gehitu da: Araban %72 eta Bizkaian %22; baina Gipuzkoan %3 murriztu da. Euskal Autonomia Erkidegoan %37 atzeritar gutxiago izan da: Gipuzkoan kopuru hori %63 murriztu da, Bizkaian ez da aldatu kopurua eta Araban (ehunekoa aintzat hartuta) nabarmen egin du gora.

Urtarrilean 11.426 gau igaro dituzte bidaiariak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan; honek %21eko gehikuntza ekarri du aurreko urteko hilabete beraren aldean. Urtetik urtera, bada, Araban (%138) eta Bizkaian (%68) hazkunde-tasa positiboak izan dira; Gipuzkoan, ordea, %16ko gutxitzea eman da.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldi kopurua gehitu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006ko urtarrilaren aldean; hain zuzen, duela urtebete 2,48 eguneko batez bestekoa izan zen eta aurtengo urtarrilean 2,70ekoa. Bilakaera positibo hau Araban eta Bizkaian eman da, baina Gipuzkoan indizeak behera egin du.

Plazen okupazio maila %10 gehitu da. Araban gora egin du (%113) eta Bizkaian ere bai (%53); Gipuzkoan, berriz, behera egin du (%-23).

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	01 2007	%	01 2006	%	Δ %	01 2007	%	01 2006	%	Δ %	01 2007	%	01 2006	%	Δ %	01 2007	%	01 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	196.765	100	178.385	100	10	31.004	100	28.607	100	8	96.910	100	84.953	100	14	68.851	100	64.825	100	6
Estatukoak	142.222	72	131.760	74	8	22.983	74	22.459	79	2	68.929	71	61.817	73	12	50.310	73	47.484	73	6
Atzerrikoak	54.543	28	46.625	26	17	8.021	26	6.148	21	30	27.981	29	23.136	27	21	18.541	27	17.341	27	7
Hiriburua	128.643	65	115.508	65	11	26.458	85	23.125	81	14	63.539	66	56.137	66	13	38.646	56	36.246	56	7
Litoral	15.955	8	13.568	8	18	-	-	-	-	-	6.904	7	6.476	8	7	9.051	13	7.092	11	28
Barnealdea	52.167	27	49.309	28	6	4.546	15	5.482	19	-17	26.467	27	22.340	26	18	21.154	31	21.487	33	-2
BIDAIARIEN SARRERAK	108.287	100	102.738	100	5	17.288	100	17.017	100	2	53.633	100	48.320	100	11	37.366	100	37.401	100	0
Estatukoak	81.284	75	79.206	77	3	13.283	77	13.697	80	-3	40.004	75	37.028	77	8	27.997	75	28.481	76	-2
Atzerrikoak	27.003	25	23.532	23	15	4.005	23	3.320	20	21	13.629	25	11.292	23	21	9.369	25	8.920	24	5
Hiriburua	72.670	67	66.358	65	10	14.109	82	13.021	77	8	36.034	67	32.363	67	11	22.527	60	20.974	56	7
Litoral	8.562	8	7.602	7	13	-	-	-	-	-	3.522	7	3.124	6	13	5.040	13	4.478	12	13
Barnealdea	27.055	25	28.778	28	-6	3.179	18	3.996	23	-20	14.077	26	12.833	27	10	9.799	26	11.949	32	-18
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,82		1,74		5	1,79		1,68		7	1,81		1,76		3	1,84		1,73		6
BETETZE-MAILA PLAZAKA	31,08		29,07		7	33,01		29,06		14	31,01		28,00		11	30,38		30,61		-1
Hiriburua	33,75		31,71		6	37,87		33,35		14	33,27		30,22		10	32,11		33,22		-3
Litoral	26,88		27,07		-1	-		-		-	23,67		25,51		-7	29,98		28,67		5
Barnealdea	27,10		24,75		9	18,90		18,85		0	28,66		24,22		18	27,81		27,57		1
BETETZE-MAILA GELAKA	41,54		38,27		9	43,18		39,77		9	42,23		37,33		13	39,77		38,98		2
Hiriburua	45,51		42,11		8	50,15		47,07		7	45,79		40,83		12	41,85		41,06		2
Litoral	34,33		35,10		-2	-		-		-	30,30		30,90		-2	38,36		39,87		-4
Barnealdea	35,30		31,89		11	22,13		21,52		3	37,54		31,93		18	37,24		35,81		4
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	11.426	100	9.432	100	21	2.305	100	970	100	138	4.054	100	2.418	100	68	5.067	100	6.044	100	-16
Estatukoak	9.569	84	7.802	83	23	2.067	90	883	90	134	3.404	84	2.139	88	59	4.098	81	4.780	79	-14
Atzerrikoak	1.857	16	1.630	17	14	238	10	87	10	174	650	16	279	12	133	969	19	1.264	21	-23
BIDAIARIEN SARRERAK	4.228	100	3.799	100	11	923	100	527	100	75	1.440	100	1.199	100	20	1.865	100	2.073	100	-10
Estatukoak	3.997	95	3.433	90	16	887	96	517	96	72	1.338	93	1.097	91	22	1.772	95	1.819	88	-3
Atzerrikoak	231	5	366	10	-37	36	4	10	4	260	102	7	102	9	0	93	5	254	12	-63
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,70		2,48		9	2,50		1,84		36	2,82		2,02		40	2,72		2,92		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	12,49		11,33		10	13,21		6,21		113	13,58		8,90		53	11,47		14,94		-23
BETETZE-MAILA GELAKA	15,34		13,33		15	15,21		7,71		97	16,99		9,83		73	14,24		17,99		-21

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp